

BB JAIO AURREKO DOWN-EN SINDROMEAK ETA BESTELAKO ANOMALIA KROMOSOMIKOAK AURKITZEKO PROGRAMA

Zer da jaio aurreko anomalia kromosomikoak aurkitzea?

Jarduera prebentiboa da, Osasun Sailak ama eta haurren osasuna hobetzeko jardueren baitan abian jarritakoa. Honen helburua anomalia kromosomikoen detekzio goiztiarra da. Horien artean sarrien ematen dena Down sindromea da.

Nori begira egiten da?

Euskal Autonomia Erkidegoan haurdun dauden emakume guztiei begira egiten da, Osakidetza zentroetara haurdunaldiaren kontrola egitera joaten direnean.

Zergatik egin behar da anomalia kromosomikoen detekzio goiztiarreko proba?

Aurrerapen zientifikoak direla-eta, gaur egun fidagarritasun handi batez, eskura, umekiak anomalia kromosomikorik duen jakiteko aukera ematen diguten probak dauzkagutako. Osakidetza horietariko bat aukeratu du, lehenengo hiru hilekoaren proba konbinatua, hain zuzen ere. Haurdun emakume guztiei eskainitako proba honek ez dakar umekia galtzeko inongo arriskurik eta Down sindromea edo bestelako anomalia kromosomikoak jasateko arriskurik handiena duten haurdunaldiak detektatzen ditu. Ondoren, arrisku handia duten emakumeei soilik eskainiko zaie amniozentesia egitea.



Horrela, amniozentesia eta proba horrek dakartzan arrisku asko baztertzen ditugu, hala nola, kasu guztien ehuneko batetan gutxi gorabehera, umekia bera galtzea.

Zertan datza lehenengo hiru hilekoaren proba konbinatua?

Proba hau azterketa mediko mota bi uztartzean datza:

Batetik, odol-analisia, zure haurdunaldiaren ohiko lehenengo kontrolean eskatzen diren beste azterketekin batera egindakoa.

Bestetik, "garondoko tolestura" deiturikoaren neurketa. Horren bitartez, umekiaren lepoaldea neurtzen da eta lehenengo hiru hilekoaren kontrolaren ekografian egiten da.

Zeintzuk dira proba konbinatu honen abantailak?

Ez dauka inongo arriskurik, ez emakumearentzat ezta umekiarentzat ere. Hori dela-eta, haurdun guztiei egin ahal zaie.

Bere sinplezia, haurdunaldian egiten diren bisita edo kontrolen kopurua handitzen ez duelako.

Bere azkartasuna, haurdunaldiko lehenengo hilabeteetan umekiaren osasunari buruzko informazioa lortzeko aukera ematen duelako.

Zer neurtzen du lehenengo hiru hilekoaren proba konbinatuak?

Zure seme-alabak anomalia kromosomikoa edukitzeko probabilitatea neurtzen du. Proba honek Down sindromearen eta hain ezagunak ez diren bestelako anomalia kromosomiko batzuen kasuetatik %92 arte detektatzen du.

Noiz egongo dira proba konbinatuaren emaitzak erabilgarri?

Emaitza lehenengo hiru hilekoaren kontroleko ekografia egiten deneko kontsultan bertan emango zaizu.

Zein da arrisku murrizteko emaitzaren esanahia?

Honen arabera, umekiak Down sindromea edo bestelako anomalia kromosomikoa edukitzeko aukera gutxi dago, baina ez du esan nahi inolako arriskurik ez dagoenik.

Probak arriskua murrizta dela adieraziz gero, ez zaizu beste probarik proposatuko.

Zer gertatzen da probak arrisku handia dagoela adierazten badu? Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

Arriskua altua bada, ginekologoak aurreko emaitza baieztatzeko edo baztertzeko amniozentesia egitea proposatuko dizu.

Edonola ere, lehenengo hiru hileko proba konbinatua jasotzen duen 20 emakumetik batek soilik, gutxi gorabehera, arrisku handiko emaitza aurkezten duela jakin behar duzu.

Behin amniozentesia egin eta gero, hiru egunetan gutxi gorabehera emaitzei buruzko lehenengo jakinarazpena jasoko duzu.

Zer gertatzen da anomalia kromosomikoa baieztatzen bada?

Anomalia kromosomikoa aurkituz gero, beharrezko informazio guztia jasoko duzu zure haurdunaldiaren inguruan egokien deritzozun erabakia hartzeko dauden aukerei buruz.

Proba hori egitea derrigorrezkoa da?

Ez, programa horretan parte hartzeko erabakia zeurea da eta, bestetik, ez duzu ahaztu behar langile sanitarioen (emaginak, ginekologoak, Lehenengo Mailako Arretaren profesionalak, erizaintzako langileak) babesa eta informazioa beti eskura edukiko duzula, zure zalantza guztiak argitzea.

Gai honi buruzko argibide gehiago eduki nahi baduzu, kontsultatu dezakezu: <http://www.osanet.euskadi.net/deteccion-down>